

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko urtarrilaren 20a. IX. urtea. 2.346. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



SOS Ume Lapurtuak elkarteak Aranzaberen hitzetan, Tolosaldean 80 kasu inguru daude. R.CALVO

## Susmoak egi bihurtzen ari direla dio SOS Ume Lapurtuak taldeak

Elkarteko Juan Bautista Aranzabek dioenez, ireki dituzten hilkutxetan gorpurik ez aurkitzeak «aldaketa interesgarriak» ekarri ditu, esaterako jarrera hobea erakutsi diete agiri eske joan direnei 03

**Iban Muñoa** Iriarte Jauregia hoteleko jabea

## «Gure hotelean zoriontasuna saltzen dugu»

Bidegoiango Iriarte Jauregia hotelak Traveller's Choice Hotels izeneko lehiaketako seigarren postua eskuratu du 06

## Eskelarien bazkariarekin hasiko dira Leitzako Ihotekak

Bihar hasiko dira Tolosaldea eta Leitzaldeko lehen Inauteriak; asteartera bitarte ekitaldi ugari izango dira, tartean astearte arratsaldeko atsauretuen kalejira 07

## Anoetako Udalak ikastaro ugari antolatu ditu

Margoketa dekoratiboa, Qi-Gong eta automasaje tailerrak izango dira herrian; bihar izango da Dantza-Soka Eguneako entsegua 04



sariduna



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du

Txolarre Irratiaren  
**Bertso Jaialdia**

• Iolanda Etxeberria  
(Larraul)



Mariano Laguarda, Amets Azkalka,  
Andoni Egana, Urtor Sarrinaga,  
Jon Maia, Jesus Mari Irujo  
Amara Agirre

Urtarrilak 21 • Larunbata • 18:00etan  
Tolosako Leidorren

harpideduna  
**TXOKA hitza**

Saridunak sarrerak lehiatilan bertan izango ditu



11:30ean hasiko da, igandean, Ero Etxe elkarteak antolatutako 25. krosa. HITZA

## Asteburuan ospatuko dituzte krosaren 25 urteak

Bihar eguerdian Ero Etxe txaranga kalez kale ibiliko da, erraldoi eta buruhandiekin batera

duradunek asteburua hasieratik girotu nahi izan dute; hori dela eta, bihar 12:00etatik aurrera, Ero Etxe elkarteak txaranga kalez kale ibiliko da, erraldoi eta buruhandiekin batera.

### Mende laurdena korrika

Mende laurdena bete dute Ero Etxeko kideek, herriko eta inguruko gaztetxoentzako krosa antolatzen. Horrela beraz, igandean, 11:30ean abiatuko dira lehen korrikalariak, San Frantzisko pasealekuko irteeratik. Infantil mailako mutikoak izango dira, eta 2.800

metro burutu beharko dituzte korrika; bi itzuli luze, alegia. Jarraian, 11:45ean, infantil mailako emakumeek 1.950 metroko ibilbidea egin beharko dute, itzuli labur batekin eta luze batekin.

12:00etan hasiko dira alebinak. 2000 eta 2001ean jaiotako mutilek itzuli luze bat egingo dute, 1.400 metro osatuz; neskek ere ibilbide bera burutuko dute korrika, 12:15ean abiatuta.

Azkenik, benjaminen txanda izango da 12:25ean. Mutilak aterako dira lehenengo, eta bi itzuli labur egin beharko dituzte; neskek

ere, ibilbide bera egingo dute, 1.100 metro osatuz.

Gaztetxoek beren korrika saioak amaitutakoan, sari banaketa izango da San Frantzisko pasealekuko podiumean.

### Bi ibilbide

Urteroko moduan, Ero Etxeko krosak bi ibilbide izango ditu igandean ere.

Ibilbide laburren San Frantzisko pasealekuaren erdi aldean hasiko da, eta Foruen etorbidea zeharkatu ondoren, Nafarroa etorbideko azken zatia zeharkatu dute korrikalari gazteek, Zumalakarregi kaletik Triangulua plazara heltzeko. Hemendik, berriro ere San Frantziskora bueltatu beharko dute, itzuli laburra bukatze aldera.

Ibilbide luzea, berriz, leku berean hasiko da, San Frantziskon. Hemendik abiatu, eta Foruen etorbideko pasa beharko dute korrikalari gazteek, Nafarroa etorbidea iristeko, eta Zumalakarregitik Triangulua plazan sartzeko. Bidea jarraituz, Korreo kalean sartuko dira, eta Gorriti plaza iritsi baino lehen, plaza Berrian sartu beharko dute, hemendik Arostegietatik kalea hartzeko.

Arostegietatik kultur etxe atzeko Atadi kalera iristen direnean, Rondillara joan beharko dute, eta hemendik San Frantzisko ibiltokira jarraitu, irteerako eta helmugako guneak egongo diren lekura.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## ↓ Kirol aktibitatea

### SASKIBALOIA

- **Bihar, 09:00etan, Usabalgo goiko kantxan.** Infantil mutilak: Take Bedaio-Axular. Infantil neskak: Take Izaskun-Aldapeta.
- **Bihar, 10:30ean, Usabalgo goiko kantxan.** Emakumezko kadeteak: Take Urkizu-Zast.
- **Bihar, 12:00etan, Usabalgo goiko kantxan.** Infantil neskak: Take Urkizu-Bera bera. Junior mutilak: Take Tolosa-Luberri.
- **Bihar, 16:00etan, Usabalgo goiko kantxan.** Nazional mailako gizonzakoak: Bide bide-Seky.
- **Bihar, 18:00etan, Usabalgo beheko kantxan.** Senior mutilak: Take Orbela-Allerru.
- **Etzi, 12:00etan, Usabalgo beheko kantxan.** Senior neskek: Tolosa Aralar-Atco SnSn.

### ARETO FUTBOLA

- **Bihar, 18:00etan, Usabalgo goiko kantxan.** Gizonzakoak: Laskorain-Ebrosala.
- **Bihar, 12:00etan, Usabalgo beheko kantxan.** Gizonzako juniorrak: Laskorain-Azpeitia.

### ESKUBALOIA

- **Bihar, 16:30ean, Usabalgo beheko kantxan.** Gizonzako kadeteak: Tolosa-Irun.
- **Etzi, 10:30ean, Usabalgo goiko kantxan.** Gizonzako kadeteak: Tolosa-Zarautz.
- **Etzi, 12:00etan, Usabalgo goiko kantxan.** Gizonzako juniorrak: Tolosa-Zarautz.

### FUTBOLA

- **Bihar, 09:00etan, Usabalgo futbol zelaian.** Gizonzako kadeteak: Tolosa-Urnieta.
- **Bihar, 10:30ean, Usabalgo futbol zelaian.** Ohorezko mailako infantil mutilak: Tolosa-Urola.
- **Bihar, 12:00etan, Usabalgo futbol zelaian.** Emakumezko juniorrak: Tolosa-Añorga.
- **Bihar, 15:30ean, Usabalgo futbol zelaian.** Emakumezko-en liga: Tolosa-Mutriku.
- **Bihar, 16:30ean, Berazubi estadioko futbol zelaian.** Erregional ohorezko mailako gizonzakoak: Tolosa-Bergara.
- **Bihar, 17:30ean, Usabalgo futbol zelaian.** Gizonzako juniorren ohorezko maila: Tolosa-Elgoibar.

### MAHAI TENISA

- **Bihar, 11:00etatik 12:30etara bitarte, Usabalgo kiroldegian.** Oargi-Zuzenak eta Oargi-Peñaskal partidak.

### ATLETISMOA

- **Etzi, 11:30etik aurrera, San Frantzisko ibiltokian.** Ero Etxe elkartearen 25. krosa.

## Txolarre irratiairen aldeko bertso doinuak

Bihar, 18:00etan hasiko da saioa; sei bertsolari ariko dira kantuan, eta Amaia Agirre gai jartzaile lanetan

### I. Urkizu

Beste urte betez, Txolarre irratia bertso saioa antolatu du Tolosako Leidor aretoan.

Azken urteotan antolatzaileek

punta-puntako bertsolariak gonbidatu izan dituzte Tolosako saioa, eta bihar ere hala izango da. Izan ere, Jexux Mari Irazu, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Maia eta Aitor Sarriegi ariko dira kantuan, Amaia Agirre bertsolari billabonatarrek jarraituko gaiei erantzunez.

Bihar izango da jaialdia, 18:00etan Leidorren, eta sarrerak salgai daude Denak, Raku, Orbe-la eta Kantabriko tabernetan.

## Bakarrizketa eta musika, David Guaporen eskutik

‘Que no nos frunjan la fiesta’ izeneko emanaldia eskainiko du gaur, Leidor aretoan, 20:30ean

### I. Urkizu

Musikari lanetan hasi bazen ere, umorearen bidea hartu zuen duela urte batzuk, David Guapo kataluniarrak, eta bere bakarrizketak, gitarra eta kantuez lagundurik, ikusgai izango dira gaur, Leidorren.

Azken hiruzpalau urteotan, teledistakoz zenbait programaren bidez ezaguna egin da David Guapo umorista; Andreu Buenafuenteekin aritu izan da, esaterako, eta era berean, Paramount Comedy katean, nahiz *Sé lo que hicisteis*, *El Hormiguero* nahiz *El Club de la Comedia* saioetan parte hartutakoa da.

Umore ikuskizumetan hasi baino lehen, ordea, David Guapo izen artistikoa duen David Callejón Kataluniako eta San Frantzis-

koko (AEB) tabernetan aritzen zen musikari moduan. Garai hartan hasi zen, emanaldietan pixkanaka hizketan, eta orduz geroztik musika eta umore-bakarrizketak uztartzen ditu aretoz areto.

Gaur Leidorren izango da, *Que no nos frunjan la fiesta* ikuskizumarekin, 20:30ean.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



David Guapo. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



SOS Ume Lapurtuak elkarteak elkarretaratzea egin zuen, Tolosan, urriaren hasieran. A. MAZ

# Hilobien irekierak aldaketak ekarri ditu

SOS Ume Lapurtuak elkartetik diotenez, aste honetan jarrera hobea erakutsi diete Donostia Ospitalean agiri eske joan direnei

Tolosaldean 80 kasu inguru daude eta horietatik 70 epaitegietan daude

**Imanol Garcia**

Azken egunetan, epaileen aginduz, hiru hilkuxa ireki dituzte. Bere haur jaioberrira lapurtu izanaren susmoa duten familiek epaitegietan hala eskatuta egin dute. Hiru hilkuxetan emaitza bera izan da: hutsak zeuden, ez zegoen gorputzen arrastorik. Susmoak egi bihurtzen ari dira, eta, SOS Ume Lapurtuak elkarteko kidea den Juan Bautista Aranzabe tolosarrak azaldu duenez, gertaera horiek «aldaketa oso interesgarriak» ekarri dituzte agiri bila dabilen familientzako.

Bost hilabetetan zehar, Donostia Ospitalean ez diete kasu handirik egin agiri bila joan diren familiei, Aranzabek zehaztu duenez. «Aste honetan joera hori aldatu egin da. Tolosatik hara pauperak eskatzera joan diren batzuei agiriak ekarriko dizkietela esan diete». Izan ere, Gasteizen daude historia kliniko guztiak gordeta. Aranzabek azaldu duenez, orain arte Donostiara joan direnei esan ohi zieten beraiek ez zutela paperik, haurra ez bazen Donostian jai. «Orain jarrera aldatu dute, eta Gasteiztik ekarriko dituztela esaten dute. Horrez gain, familia guztiak hobe dutela Donostia Ospitaletik pasatzea beraien eskaria egiteko esan dute».

Erregistroan ere aldaketa sumatu dutela dio Aranzabek.

Azken egunetako beste albiste batzuk ez direla pozgarriak izan esan du SOS Ume Lapurtuak elkarteko kideak: «Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako bozeramaleak elkarteari laguntzeko dirurik ez dagoela esan du». Orain hiru urte lanean dabilzala dio, eta dirua poltsikotik atera behar izan dutela gaineratu du. Foru eta udal hauteskundeetan izan diren aldaketak medio, esperantza handiagoa du Bilduk agintzen duen erakundeetatik diru laguntzak jasotzeko. «Prestutasun gehiago azaldu dute, eta nik uste dut laguntzak jaso ahalko ditugula», azaldu du Aranzabek.

## Bi ondorio

Ireki diren hilkuxetan gorputzik ez aurkitzeak bi ondorio dituela azaldu du Aranzabek. «Alde bate-tik, guk susmo hori beti izan dugu, ez zela ezer azalduko hilkuxetan, haurrak lapurtuak izan zirelako». Gertakari guzti horien atzean trama bat zegoela deritzo: «Hor zeuden sartuta sendagilea, emagina, anestesista, apaiza, moja, erizainak eta lur-emaileak». Beste ondorioa, susmoa egi bihurtu zaien familiek hasi behar duten bilaketa oso zaila dela nabarmendu du Aranzabek.

Hilkutzak irekitzeari dagokionez, leku jakin batean, familiaren panteoian, adibidez, lurperatuta daudenak irekitzea du zentzua, gero froga bezala balio dezan. Panteoiak epaitegiaren aginduz ireki behar direla gogorarazi du SOS Ume Lapurtuak elkarteko kideak: «Epaile bat ez badago aurrean, ez du ezertarako balio».

Aranzabe eta bere familiaren kasuan, ez zen horrela izan. «Guri esan ziguten Polloeko hilerrian lurperatu zutela, eta jaioberriri leku komun batera botatzen zituztela. Leku hori zabal-tzen bada, nola jakin zeinenak diren topatzen diren gorputzik-nak?». Gainera, bere kasuan, obra batzuk egin ondoren leku horretan lurperatuta zegoenaren berri ez dutela esan zieten hilerri-tik.

Haurra bilatzeko zailtasun handiak daudela dio Aranzabek: «Marra bat daukagu, eta hortik ezin gara pasatu. Paperekin epaitegietara joaten gara eta DNA frogagaitzen dugu, baina hortik aurrera ezin dugu joan». Horren jarraipena beste aldetik etorri behar duela dio: «Nire semea bizi-

rik badago, non nago? Eta hark zergatik jarri behar du nirekin harremanetan? Aurreneko gauza jakin behar du lapurtua izan dela. Bestetik, DNA froga egin beharko du».

Bestalde, Aranzabek gauza bat argi utzi nahi du. Bere ustetan, lapurtutako haur asko gertu egon daitezke. «Esaten da Tenerifera eramane zizutela, baina nik eza-

**Orain hiru urte lanean dabilzala diote elkartetik, eta ez dutela laguntzarik jaso**

**«Lapurtuak izan ziren bi haur Tolosan bizi izan ziren», dio Juan Bautista Aranzabek**

gutu dut pertsona bat, bera eta bere arreba lapurtuak izan zirenak, eta Tolosan bizi izan zirenak. Bakoitzagatik hirurehun mila pezeta ordaindu zituztela esan zidan. Lapurtutako haur asko gertu izan daitezke».

Argi du ere, elkarteko beste ki-

deek bezala, noizbait semea edo alaba aurkitzen badute zer esango zien: «Egia jakin dezala. Guk ez genuela behin ere utzi, lapurtua izan zela».

## Tolosaldean, kasu ugari

Gipuzkoan guztira 320 kasu inguru daudela dio Aranzabek, eta horietatik 200 epaitegietan daudela. «Besteek ez dituzte frogak edo agiririk epaitegietara eramaten». Tolosaldeari dagokionez, 80 kasu inguru direla dio Aranzabek, eta epaitegietan daudenak 70 inguru dira. Aurki beste hamabi panteoi irekiko direla aurreikus-tzen da, baina ez dakite non izango diren. «Irekitzen dituzten hilkuxa ia guztiak hutsik egongo dira», dio Aranzabek.

Elkartetik jendearen laguntza eskatu dute: «Baten batek irregulartasunak izan direla baldin badaki, gurekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu». Bestalde, familiaren batek bere kasuaren berri eman eta laguntza behar badu, elkartera jo dezake. Harremanetarako 699 169 243 zenbakira deitu edo [jbaranazabe@hotmail.com](mailto:jbaranazabe@hotmail.com) helbidera idatzi dezake.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Interinoa.** Adineko pertsona bat zaintzeko, interino moduan arituko den pertsona euskalduna behar dugu Errezilen. Intere-satuek, deitu 699 145856ra.

### GALDUTAKOAK

■ **Belarritakoa.** Pasa den aste-

azkenean, belarritakoa galdu nuen Tolosako Trianguloa inguruan. Norbaitek topatu badu, deitu dezala mesedez 943 650185 zenbakira.

### SALGAI

■ **Autokarabana.** Duke 37 El-nagh markakoa, egoera oso

onean dagoen 2007 urteko autokarabana salgai. 6 pertsonen bidaiatzeko eta 6 pertsonen lo egiteko tokia dauka. Gehigarri guztiak ditu eta beti garajejan gordeza izan da. Interesa dutenek, ondorengo telefono zenbakira deitu dezaket: 680 240805.

# Anoetarrek ez dute geldirik egoteko aitzakiarik

Udala tartean dela, margoketa dekoratibo ikastaroa, dantza entsegu eta Qi-Gong tailerra antolatatu dituzte

**A. Imaz** Anoeta

Anoetako herritarren jakituria areagotzeko aukerak ez ziren 2011n amaitu. Urte berria, arlo horretan, indartsu hasi dute, eta udalaren laguntzarekin hiru ekimenetan parte hartzeko aukera dute ondorengo egunetan. Gaiak ondorengo dira: sokadantza, margoketa dekoratiboa, Qi-Gong eta automasajea. Entseguak, ikastaroa eta tailerrak geldirik egoteko aitzakia guztiak uxatu dizkie anoetarrei.

Otsailaren 11n, larunbata, Anoetan Dantza-Soka eguna ospatuko dute. Axeri dantza eta fandango nahiz arin-arina lantzeko, entseguak antolatatu dituzte bihar eta hilaren 27an. Bi ostiral hauean 19:30ean elkartuko dira frontoian. Entsegu orokorrak, aldi, otsailaren 3an eta 8an egingo dute frontoian: lehena 19:30ean, eta bigarrena 19:00etan.

Antolatzaileen esanetan, oso garrantzitsua da entsegu orokorretara azaltzea. Parte hartzeko zerrendak, bestalde, Itzuli tabernan jarri dituzte. Bertan, DBH2tik gorakoek eman dezakete izena.

Margoketa dekoratiboari buruzko ikastaroa Kutxak antolatuko du, Hozpel kaleko udal lokaletan. Urte osoan, guztira 48 orduko ikastaroa izango da: otsaila-maiatza eta urria-abendua artean banatuta, eta ostegunetan, 15:15etik 17:15era. Izena emateko epea asteazkenean zabaldu zen, eta hilaren 25a bitarte egongo da irekita. 151 euro ordaindu behar dira matrikula, materiala aparte. Ikastaroan parte hartu nahi duenak [www.kutxasocial.com](http://www.kutxasocial.com) helbidera

idatzi behar du, edo 902 54 00 40 telefonora deitu. Ikastaroaren lehen eguna otsailaren 9an izango da.

## Qi-Gong tailerra

Automasaje eta Qi-Gong tailerra bereziki pre eta post menopausian dauden emakumeentzat prestatu dute, eta aurkezpen saioa doakoa izango da, hilaren 27an, 18:00etatik 20:00etara kiroldegian. Partaideek hala nahi izanez gero, jarraipena emango zaio inauterien ondoren. Izen ematea udaletxean, liburutegian eta kiroldegian egin daiteke, hilaren 25a arte.

Qi-Gong teknika medikuntza txinatarratik dator, eta 5.000 urte baino gehiago izan arren, udaletik azaldu dutenez, «gaurkotasan handia du, jakinduria handia izateaz gain, bizitzako erritmoa delako oinarri».

Asiatik datorren teknika hau onuragarria zertarako den galde-tuta, emakumeen fisiologia aipatzen da udaletik zabaldu duten informazioan: «Emakumeok fisiologia berezia daukagu, haurrak sortzeko eta ziklotara lotua: haurdunaldiak, hilerokoak, menopausia, eta abar. Hortaz, Qi-Gong lagungarria izan daiteke guretzat honetarako. s Alde bateatik, emetasuna oinarri hartuz, gure burua hobeto ezagutu, indartu, sendotu, sendatu, berritu eta lasaitzeko, eta bestetik, hezurak indartzen eta bularreko eta umetokiko gaixotasunei aurre egiten laguntzeko. Osasuna, ongizatea eta bizitza luzeagoa eta lasaia lortuz».

Qi-Gong eta automasaje tailerretan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek Anoetako Udaletik, «anima zaitetz zure burua hobeto ezagutzera eta bizitzan sakontzera» lelopean. Horrekin batera, tailerrera arropa erosoarekin joateko gomendioa egin dute, teknika hau arazorik gabe lantzeko.

# Binakakoan Saralegik Arretxe ordezkatu du

Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok 22-7 irabazi diete Aitor Zubietari eta Aritz Lasari

**Asier Imaz**

Eskubin binakako pilota txapelketaren bosgarren jardunaldia aste-buru honetan jokatu da. Ekaitz Saralegik bertan parte hartzeko aukera izango du, Iker Arretxe-ren lekuan Beginorekin bikotea osatuz. Amezketarrak gaur jokatu du Azpeitian, Xala-Laskurainen aurka.

Iker Arretxek iragan astean min hartu zuen buruan pilotakada bat jaso ostean. Partida bertan behera gelditu zen, eta aste guztia berreskurapen lanetan pasa ondoren, azkenean ez jokatzera erabaki du. Saiklaren nagusian argi postuan dagoen bikoteko partaidea izatea tokatuko zaio gaur, beraz, Ekaitz Saralegiri.

Indartsu dabilen bikotea, Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok osatzen dutena da. Laugarren jardunaldiko azken partidari, herenegun, 22-7 irabazi zien

Lasa-Zubietari. Ondorioz, saiklaren nagusian partidariak galdu gabe jarraitzen dute, Olaizola II-Beroizen pare. Hain justu, bi bikote hauen arteko lehia ikusteko aukera egongo da igande honetan, Bilbon. Une honetan, binakako txapelketan dagoen partidariak ederrena izango da etzokia.

Txapelketan dagoen eskualdeko hirugarren pilotariak, Oinatz Bengoetxeak, Logroñon jokatu du larunbatean. Leitzarrak atzean Apraiz izango du lagun, eta aurkari bezala Titin III.a eta Merino II.a. Asegarceko bikotea saiklaren nagusian laugarren postuan aurkitzen da, bi eta biko balantzearekin.

## Eskualdean partidak

Eskualdeko pilota eskoletako pilotariak partida ugari jokatu dituzte asteburu honetan. Gaur, Bidegoianen 19:00etatik aurrera; Villabonan 19:30ean eta Ikaztegiatan 20:00etan izango dira partidak. Bihar, Zizurkilen eta Bidegoianen antolatatu dituzte jaialdiak, 16:00etan eta 17:00etan, hurrenez hurren. Etzi, igandean, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 16:30etik aurrera, bost partida jokatu dira.

# Saharar herriari laguntzeko bilketa egingo du Jesusen Bihotzak

**Erredakzioa**

Tolosaldea Sahararekin elkartearren proiektuarekin bat eginez, Villabona eta Zizurkileko Jesusen Bihotza ikastolak saharar herriarekiko elkartasuna bultzatzeko deia egin die herritar guztiei. Alde batetik, saharar errefuxiatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eraman nahi da. Horretarako janari bilketa burutzen ari dira ikastolakoak.

Bestetik, Saharako lurralde askatueta Mehriz izeneko herriaren eskola bat eraikitzen ari direla azaldu dute Jesusen Bihotzatik: «Dagoeneko hiru gela daude eraikituta, eta bertan 44 ikasle dabilta oraingo. Beraz, eskola materiala ere jasoko dugu. Eskola horretan 120 ikasleentzako tokia egongo da, eta hauek hezkuntza lana bete dezaten gure laguntza behar dute».

Elikagaiak eta garbiketa materiala eta eskola materiala biltzeko guneak Txermin eta Zizurkilgo eraikinetan jarri dituzte, ikasle ikasgeletan. Zentroko eraikinean ere materiala emateko aukera egongo da. Jesusen Bihotzatik azaldu dutenez, hilaren 26a izango da bilketa egingo duten azken eguna.

 **Gutuna**

# Tolosaldea desberdin baten alde

Gipuzkoa desberdin baten alde. Jendarte-eredu desberdin baten alde. Norabidea aldatzearen alde. Informazioa, eztabaida eta erabakia oinarri izango dituen demokrazia parte-hartzailearen alde. Urtetan zehar azpiegitura handien aurka borrokan jardun duten herri-mugimenduek bat egin, eta Gipuzkoaren etorkizunaren aldeko dinamika abiarazi dute. Ezker abertzaleak, bere eremu eta eragin guneetatik bat egiten du norabide horretan.

Urteetako *apartheid* politiko instituzionala iraultzeko garaia da. Gipuzkoarren multzo handi batek hala exijituta, erakundeak balaztari ematen hasiak dira. Hor ditugu hondakinen inguruan ireki berri den hausnarke-ta-epa; Jaizkibelgo superportuarekiko aurkakotasuna; abiadura handiko trenaren eraikitze erabakia, herritarren nahi eta iritzieren gainetik ezarri izana salatzea... erakundeetan pitzadura sortu duten ekintzak eta adierazpenak ditugu, azken ur-

teotan, Gipuzkoaren errealitate soziala islatzen ez zuten erakunde fase amaiera, ohitura jakin batzuen amaiera, politika egiteko modu jakin horren amaiera dugu. Amaiera guztiak dakarten hasiera dagokigu marraztea. Tolosaldea osatzen dugun herrion eta herritarren neurria eginiko eraldaketak bultzatu behar ditugu. Tokian-tokiko administrazio publikoetatik, herri txiki, ertain eta landa eremuak babestu eta indartu behar ditugu. Espainiaren bertebratzeko apustua egiten duten azpiegituren gainetik, eskualdeen arteko komunikazio bideak bultzatu behar dira.

Azpiegitura hau edo hura zailtzean jartzen duen ikuspuntuak, azken urteotan poltronean erabat iltzatuta zeuden alderdiek, kontzeptu horiek guztiak ulertzeko duten modu jakin horri erantzuten diote. Azken finean, jendarte eta ekonomia eredu ulertzeko moduak daude jokoan: herritarren diru eta baliabideak erabiliz gutxi

batzuen interesak defendatzen dituen eredu, eta baliabide publikoak herritarren behar errealak bideratzeko garrantzitsua eta partaidetza oinarri dituen eredu.

Tolosaldearen paisaia irensten hasia den azpiegitura erraldoi horri ezetz oihukatzen diogu, langileen lan baldintza negargarriak tarteko, heriotzak bultzatu dituen azpiegitura horri ez oihukatzen diogu. «Ez» asko oihukatzen gataz. «Bai» erraldoi bat osatuzera, bidenabar ere. Tolosaldea osatzen eta bizitzan dugunon «Bai» ahots asko entzungo direlako, aurrera begirako Tolosaldea desberdin baten alde!

Hala, esan dezagun larunbat honetan, urtarrilaren 21ean, Tolosan 12:30ean Trianguloa plaza-rik irtegan den manifestazioan: *Xahuketarik ez! AHTRik ez!*, eta otsailaren 4an, Donostian, *Gipuzkoa desberdin baten alde, jendarte eredu aldatu!*

■ **Bittor Etxeberria**. Tolosaldeko ezker abertzalea.



**LIZARRIBAR OINETAKOAK**  
**MERKEALDIA**  
1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

# Udalak langabezian dauden 62 pertsona lanerako hartu ditu

Eskatzaileak Lanbiden izena emanda dute, eta ez dute kotizaziopeko laguntzarik jasotzen

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Udalak langabezia egoeran dauden edota gizarte bazterketa pairatzen duten 62 pertsona hartu ditu lanerako. Programa hau Eusko Jaurlaritzako Enplegusailak eta Lanbide enplegu zerbitzuak sustatu dute, eta honako hauentzat egina dago: Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egonda lanik eduki ez eta langabezia saririk jasotzen ez dutenei, edota DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen dutenei.

Programa 62 lanpostuk osatzen dute eta hainbat esparrutakoak dira: teknologia berrien garapena; ingurumenarekin erlazionatutako lanak; birziklapena, kulturaren, aisiaren eta kirolaren sustapena; artea eta ondarea berreskuratzea; gizarte zerbitzuak; eta herrien eta landa eremuen zaintza eta mantentze-lana. Programa, bereziki, bi talderentzat da. Batetik, ikasketa zehatzik ez duten pertsonen eta, bestetik, erdi eta goi-mailako ikasketak edukita lan esperientzia txikia duten gazteei.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu

sailak ezarritako baldintzen arabera, programa honetan parte hartu ahal izateko Lanbiden izena emanda egon eta kotizaziopeko laguntzarik jasotzen ez duen edota DBE jasotzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia izan behar da.

Hori dela eta, langileen aukeraketa Lanbideekin egin da zuzenean, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean. Kontratazio prozesuak 6 hilabeteko iraupena izan du, maiatzetik abendura bitarte.

Lan hitzarmen guztiak lanaldi osokoak dira, eta iraupen ezberdina dute: %4,84k (3 lan hitzarmen) 3 hilabeteko iraupena dute eta %95,16k (59 lan hitzarmen) 6 hilabetekoa.

Horrez gain, kontratuen %13, guztira 8, egin dira herriko erakunde pribatuekin elkarlanean, udalarekin zerbitzu-kontratu bat esleitura zuten enpresekin, hain zuzen.

Gaur egun, programa honetarako udala honako erakunde hauekin ari da elkarlanean: Tolosa & Co, Goroldi, Kirolder, eta Tolosako Mankomunitatea.

## Langileen ezaugarriak

Tolosako Udalak jakinarazi duenez, hartutako 62 pertsonetatik %40 emakumeak dira eta gainontzekoak, %60, gizonezkoak. Langileen %25 DBE jasotzen dutenak dira, eta %75 langabezian egonda

ez zuten langabezia saririk jasotzen.

Era berean, langileen %44k 18 eta 30 urte bitartean dituzte. Kontratu mota hauei esker, gazteek enplegu bat izateko aukera gehiago dute, lehenengo aldiz lan munduan esperientzia izango dute eta.

Eskainitako 62 lanpostuetako 33 (%54) peoi eta laguntzaileei zuzenduta daude; 12 lanpostu (%20) administrazioko langileei; 8 lanpostu (%13) erdi mailako teknikariari; eta azkenik, 8 lanpostu (%13) goi mailako teknikarietara bete dira.

## Babarrunaren bueltan

Bestalde, udalak gogorazi du, Fraisoroko landa eskolan trebakuntza jaso ondoren, 16 pertsona ari direla lanean lehenengo sektorean. Babarruna erretako hilabete batzuk falta badira ere, beste zeregin batzuetan ari dira burubelardi. Horrela, enplegu programa berari esker, urteko lehenengo hilabeteetan nekazaritza lanak eginen ari dira hainbat usitiapen eremutan.

Garapen Ekonomikoko udal sailak programa bakarrean uzartu ditu trebakuntza (Lanbidekin finantzatu) eta enplegua (kontratazioarako ezohiko laguntzen programak finantzatu) eta enplegu programa berritzaile bat jarri du abian, gaur arte Tolosako babarrunaren ekoizpenaren sektorean eragiten ari dena.

## Abian dauden proiektuak

Horiek horrela, jada abian dauden proiektuen berri eman du udalak. Batetik, agente zibikoek taldea osatu du. Hiru pertsonen osatzen dute; koordinatzailea (DBE jasotzen du) eta bi gizonezko gazte. Agente zibikoek taldea datu bilketa egiten ari da bide seinale bertikalen eta horizontalen egoeraren eta erabileraren inguruan. Horretaz gain, herritarrek



Agente zibikoek lana datu bilketa egitea da, besteren artean. HITZA

kontzientziatzen ari da bide-zeinkuntzako gaietan. Beraz, herritarren segurtasuna hobetzen ari da taldea. Bestetik, azokan arduratzaile eramateko 26 urteko neska gazte bat hartu du udalak. Tolosako merkatuetako (Zerkausia, plaza Berdura eta Euskal Herria plaza) saltzaileen errolda eguneratua eginen ari da, saltzaileak eta bezeroen beharrak asebetzeko asmotan. Koordinazio laguntzailea ere hartu du udalak. 30 urte dituen, herrira itzuli da duela 6 hilabete eta lan aukera honek bere bizitzako beste aldi bat gogotsu hasteko parada eman dio. Lanpostuan beteko duen funtzio nagusia udalako Enplegu Planaren kudeaketan laguntzea da, kontratatu diren pertsona guztien gogobetetasuna lortzeko asmoz.

Herriko mantentze-lanen agenteak ere hartu dituzte. Lan talde hau 30 eta 56 urte bitarteko hiru pertsonen osatua dago eta horietako bi DBE jasotzen duten taldekoak dira. Langile hauek herriko bide seinale bertikalaren

eta horizontalaren (seinaleak, semaforoak, zebra bideen, eta abar.) konponketa, garbiketa eta mantentze-lanak egiten ari dira.

Herri-bideen aztertzaileari dagokionez, lanerako hartu duten pertsona 8 urtez egon da langabezian eta DBE jasotzen. Zuzenbidean lizentziatua dago. Lanpostuaren funtzio nagusia Tolosako herri-bideen titulartasunaren azterketa egitea da. Azterketa horren ondorioz erregistro berria egingo da eta bertan, erregistroan, aztertutako landa lurren jabeak azalduko dira.

Bukatzeko, hizkuntza gaitasunean aditua den pertsona hartu dute. Gogor ikasi eta hezikuntzaren arloan bi espezialitate lortu ostean, 23 urteko irakasle hau bere lehen lan esperientzia murgilduta dago. Bere lanari esker euskararen erabilera sustatzen ari da Tolosako eskoletan eta ikastolan, eta horrela, ahozkoan zein idatzian zailtasun handienak erakusten dituzten ikasle atzeritarren artean hizkuntzaren erabilera indartzen ari da.

## Irudia



## FRAGA TOLOSAN IZAN ZENKOA

Orain gutxi hil den Manuel Fraga gutxienez behin egon da Tolosan, 1967ko Sanjoanetan, hain justu. Fraga orduan Francoren Turismo ministroa zen, eta Kasino elkartearen ireki zuten Meson Idiakez jabetzearen inaugurazioan izan zen. Zortzi bazkidek bultzatu zuten Meson Idiakez, eta Nestor Basterretxeak diseinatu eta obrak zuzendu zituen. Gaur egun Akelarre jabetxearen duen Pedro Subijana izan zen lehen sukaldaria, baina jabetxeak ez zuen arrakastarik izan eta 1973an itxi zuten. CASINO DE

TOLOSA 1885-1985

www.euskalherriko **PLAZA**.com

Urtarrileko aldapa samurtzeko...

**Bidalketa gastuak DOAN!!**

Urtarrilaren 31 bitartean

**Gainera:**

- Euskal-linge Eskalabala (170 cm x 140 cm): 24 €
- Puntuak Agenda bat: 8 €
- Bi agenda: 12 €

**Loarregirre** **Gartzategi** **Larre-Gain**

**-%5 + puntu estrak**

**Sariak:**

Otorduak sagardotegietan

Erosketa bakoitzean eskuratzeko diren puntuak sariak trukatzeko dira

**Iban Muñoa** ◊ Iriarte Jauregiko jabea

TripAdvisor webguneak Traveller's Choice Hotels sariak banatu ditu, eta Bidegoiango Iriarte Jauregia hotelak seigarren postua eskuratu du.

# «Zerrenda horretan egotea guretzat bizia da»

**Eneritz Maiz** Bidegoian

Familiako negozioa aurrera darara Iban Muñoak. 2009ko udan, Bidegoianen ireki zuen Iriarte Jauregia hotela Lorena Arco emaztearekin batera. Atzo jakin zuten, Estatu mailan, Traveller's Choice Hotels sarietan seigarren postua eskuratu dutela. TripAdvisor munduko bidaien webgunea da, eta Fitur azokan eman dute sarien berri.

**TripAdvisor webguneak ematen dituen Traveller's Choice Hotels sarietan 6. postua eskuratu duzue. Nola jaso duzue albistea?**

Egia esan gaur goizean [atzo] enteratu gara, eta oso oso pozik hartu dugu albistea. Hotel bat eguneroko azterketa da, eta sari honek duen berezitasunik onena da ez dela komite txiki baten iritzia, baizik eta, bozkatzan dutenak bisitariak beraien direla. Izugarri harro gaude.

**Bisitariak emandako saria izateak garrantzi berezia izango du, ezta?**

Garrantzi oso berezia du. Sari batzuk aldikariek edo erakunde pribatuek ematen dituzte, eta azkenean hori subjektu pribatu batek asmatu dezake. Baina hau ezberdina da. Ehunka lagun pasa dira hemendik, eta iritziak eman ondoren, Estatu mailako ia 3.000 hoteletatik gurea seigarrena izatea izugarritzko lorpena da. Gainera, TripAdvisor mundu mailakoa da, eta webguneak berak duen oihartzuna nazioartekoa da.



Lorena Arco eta bere senarra, Iban Muñoa. E.M.AIZ

**Bisitariak zer baloratu dutela uste duzu?**

Guk beti bi plano daudela esaten dugu. Toki zoragarria izan daiteke: argi politak, ohe erosoak, dekorazio ikusgarria,... baina guzti horri arima bat ez badiotzu ematen, gauza bat besterik ez da. Hotel polita egitea epe mugatu bateko ahalegina da. Lortu edo ez lortu, lan hori egina dago. Gero bi lan daude. Alde batetik, lortu duzun hotela denborarekin mantentzea izango litzateke, eta bestea, atetik sartzen den persona oro errespetatzea izango litzateke. Denek ordaintzen digute, denek merezi dute begirada bat, irribarre bat, atentzioa,... Gure bisitariak ez dira bertakoak. Euskal Herrikoak izaten ditugu, baina gehienago, Estatu mailakoa edo mundu mailakoa da. Estatutik eta atzerrikigut eta Euskal Herria bisita-

tza datozeinei esker ona emateko argudioa azalpenak ematea da.

**Bertako informazioa ematea esan nahi duzu?**

Hotela bai, baina non dauden, zer bisitatu behar den, gastronomia,... azalpenak eman behar zaizkie. Ordaintzen ari denean, hotelaz gain, hiru edo lau egunetako esperientzia ari da ordaintzen. Esperientzia zoriontsua izan bada, hotelak zoragarria izaten jarraitzen du. Nolabait, Euskal Herria ezagutzen eta egun horiek ongi pasatzen laguntzen diegu. Bisitarien nahien arabera irteerak eskaintzen dizkiegu. Tontakeria dirudi, baina gurea bezalako hoteletan zoriontasuna saltzen dugu. Azterketa orokorra da, eta hori da gure bidea eta horrela sinesten dugu.

**Bisitariak esker webgune bateko**

**nelako saria emateak, aurrera jarraitzeko indarra emango du?**

Harrituta geratu gara. Bakoitzak bere lana normalizatu egiten du, eta egunero duzun hoberena eman behar duzu. Zaila da hona heltzea, baina zailagoa izaten da mantentzea. Orain, etorriko diren bisitari guztiek Estatu mailako seigarren hotelik onena espero dute. Ardura bat da. Lehen lana ondo eginez harridura sortzen genuen, baina orain dagoeneko hori espero dute, eta ezustekoa bukatu da. Orain zailagoa izango da, baina gure helburua hurrengo urtean ere ea berriz zerrenda horretan gauden izango da, eta zergatik ez bosgarrenak! Azkenean, honelako proiektu pertsonalek, bizitzaren traiektoria daukate. Hau ez da enpresa handien hotela, baizik eta familia batena. Eta hor egotea guretzat bizia da.

**2009ko udan ireki zenuten krisialdi betean. Epe labur honetan zein izan da ibilbidea?**

Zaila da. Krisialdian sortutako enpresa bat gara, eta egoera ekonomiko horretan jaio ginen. Gure bidea egiten ari gara. Zerbitzu hau eskaintzea oso garestia da, eta jendeak ulertu behar du. Hementzeri gelako produkzio batean, atentzio pertsonalizatua, dena goxo eta txukun izateak kostu handia du. Zaila izaten ari da, baina era berean zirrarragarria da. Ordu asko sartzen ari gara, eta lan talde txikia gara.

**Zein motatako bisitariak iristen dira Iriarte Jauregira?**

Gure bisitarien gehiengoa Euskal Herrikoa da. Estatutik datozen artean Madriletik eta Bartzelonatik etorritakoak daude. Eta gure bisitarien %40a atzerriketik etorritakoek osatzen dute, hau da, mundu mailakoa. Eta gehiengoa, estatubatuarra da. Eta horregatik gaude, oso pozik, TripAdvisor mundu mailakoa delako. Eta oso polita da guretzat.

◊ [alegiad@hitza.info](mailto:alegiad@hitza.info)

## → Laburrak

### 12:00etan bilera egingo du TOPA plataformak, bihar

**TOLOSA** ◊ Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko plataformak bilera egingo du, bihar, 12:00etan. Udaletzeko pleno aretoan izango da, eta herritar guztiak dei egiten diete bertan parte hartzeko.

### Bihar AHTaren aurkako manifestazioa izango da

**TOLOSA** ◊ Bihar, hilak 21, *Xahuketarik ez! AHTrik ez!* lelopean, manifestazio burrunbatsua irtingo da Trianguloatik, bizitzaren traiektoria handien aurkako jardueren barruan izango da.

### Rondilla kalea itxita egingo da, igandean

**TOLOSA** ◊ Ero Etxe krosa dela eta, Tolosako Rondilla kalea itxita egingo da, igandean, 10:00etatik 14:00etara. Ibilbide luzeko autobusen Rondilla 34ko geltokia, Santa Clara aldatu dute. Eta TSST autobusak, berriz, Amaretetik sartuko dira Tolosara, eta geldialdiak zezen plazan, Nafarroa etorbidean, Jon Andoni Irazustan eta Larramendin egingo dituzte.

### Harizpe elkarteak urteko batzarra egingo du

**TOLOSA** ◊ Tolosako Harizpe Jubilatua Pentsiodunen Elkarteak, urteko batzar orokorra egingo du, bihar. Zentro sozialeko aretoan izango da, eta lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan deitu dituzte. Bazkideei bertara joatea eskatzen zaie.

### Auzolanerako deia luzatu du nekazari berri batek

**BERRROBI** ◊ Urtarrileko azken bi igandeetarako auzolanerako deia egin du Iñaki Bera, nekazari berriak. Negutegian laguntzea nahi du, eta Barazki bizidunak da bere negutegia. Igandean bere negutegira gerturatzea nahikoa izango da.

### 'Alwin y las Ardillas 3' eta 'Metodo Peligroso', filmak

**AMASA-VILLABONA** ◊ Villabonako Gurea zinemaren, bi film izango dira asteburuan. Larunbatean, 19:30ean eta 22:15ean, *Metodo Peligroso* filma eskainiko dute. Igandean, berriz, 16:30ean, *Alwin y las Ardillas 3* filma izango da, eta 19:30ean, *Metodo Peligroso* ikusi ahaliko da. Astelehenean, berriro, 21:30ean, *Metodo Peligroso* eskainiko dute.

## Irudia



## TOLOSALDEAK AITORTZA DIPLOMA JASO DU

Asteazkenetik igandea bitartean Madrilen egiten ari diren Fitur ferian Tolosaldea ezagutarazten ari dira. Madrilgo IFEMA feria gunean ospatzen da, eta Espainiar estatuko turismo feria garrantzitsuenetako bat da. Tolosaldean dugun aberastasuna erakusgai jarri dute eskualdeko arduradunek. Atzo, Estatuko Turismo Idazkaritzarengandik aitortza Diploma jaso du Tolosaldeak. Turismo Kalitate Sistema Integrala ezartzeko egindako esfortzuagatik eta turismo sektorean etengabeko hobekuntzaren alde egindako lanagatik eman diote. HITZA

# Badatoz, eskelarien eta atsaureen lhoteak

Bihar hasiko dira Leitzako Inauteriak, eta asteartera bitarte ederki igarotzeko hamaika ekitaldi izango da

**Itigo Terradillos** Leitza

Festarik zoro eta dibertigarrienek Leitzan izango dute abiapuntua, bi eskualdeetako lehenengo Inauteriak bertan ospatzen baituzte. Hain zuzen ere, bihar ekin go diete lhotei asteartean amaitzeko. Lau egunetan, eskeak, mozorroak, gurdiak, txaranga doinuak, atsaureak edota otordua izango dira, besteak beste.

Leitzako kultur taldetik diotenez, «beste urteetako osagaiak errepikatzen dira aurtengo jaientan». Hala, ia egunero eskean ariko dira, egunaren arabera leku batean edo bestean izango direlarik eskelariak. Larunbatean herrian zehar ariko dira, astelehenean baserri baserri, eta asteartean, Erasote auzoan. Asteleheneko baserrietako eskean nabarmendu du Juan Mari Barriola Alke elkarteak: «Arrakasta handia izan ohi du, jende ugari biltzen baita; oso polita izaten da».

Txarangen doinuak etzi, igandean, izango dira entzungai, eta bai egun horretan, bai eta astelehenean ere, mozorroturik aterako dira herritarrak kalera. Banakako nahiz koadrilek irudimenez sortu dituzten txantxoak eta gurdiak ikusteko aukera izango da, beraz.

Bestalde, otorduek ez dute hitz egingo aurtengo lhoteetan.

Bihar, etzi eta asteartean bazkariak egongo dira, eta asteartean afaria ere bai. Torrean barrikotea egingo dute, eta bertarako txartelak astelehena baino lehen eskuratu behar dira, 27 eurotan. Bestalde, bada egun hauetan, leitzarrek jan ohi duten jaki bat: «Herriko elkarteetan txerri hanka belarriak prestatzeko ohitura handia izaten du jendeak», dio Barriolak.

## Atsauretzeko deialdia

Urtetik urtera indartzen ari dena garai batean ekitaldi nagusia izaten zen atsaureen kalejira da. Astearte arratsaldean izango da, eta herritar guztiak daude deituta parte hartzera. «Gure lhoteen bilakaera ikusita, duela bost urte hasi ginen garai batean oso garrantzitsua zen atsaureen kalejira berreskuratu nahian, jaiak herrikiogai egite aldera».

Horretarako, herriko adinekoekin ikerketa bat egin zuten, garai hartan kalejira nola egiten zuten jakiteko. «Erreka auzotik etorri ohi ziren atsaureak, joaldunen moduan, mozorroturik eta zintzarriekin, eta animaliak ere atsauretzeko ziztuzten; gainera, herri osoa mozorrotzen zen».

Beste urteetan ez bezala, aurtengoan, herriko leku desberdinetatik irtengo dira atsaureak. Zakuak, soineko koloretsuak, ardi larriak, adarrak, kareta, zintzarriak... soinean dituztela ikusiko dira beraz herritarrak. «Garrantzitsua arpegia tapatzea eta zarata egiteko zer edo zer eramatea da», dio Alke elkarteak.

Irudimenari leku egin eta mozorroen atzean ezkatutako guttia prest dute Leitzan.



Eskelariak, Lesokolarreta baserrian gosari eder bat egiten, iazko lhoteetan. MAIER UGARTEMENDIA

## ↓ Egitaraua

### URTARRILAK 21, LARUNBATA

- **14:00.** Eskelarien bazkaria Aurreran.
- **16:00.** Herritik eskea.
- **01:00.** Atekabeltz gaztetxean: prozesioa-antzerkia.
- **Ondoren.** Karaokea.

### URTARRILAK 22, IGANDEA

- **12:00.** Txaranga eta gurdiak herrian barrena.
- **14:30.** Eskolatan mozorrotuen bazkaria.
- **19:00etatik 23:30era.** Gaubela taldea plazan.
- **Egun guztian.** Inkansables txaranga ariko da.
- **12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.** Txutxu-trena.

### URTARRILAK 23, ASTELEHENA

- **09:00.** Baserrietako eskea.
- **17:00.** Umeek mozorrotuta kalejira.
- **Ondoren.** Txokolatea plazan.
- **19:00.** Gaubela plazan.

### URTARRILAK 24, ASTEARTEA

- **09:00.** Erasote auzoko eskea.
- **11:00.** Umeentzat jokoak frontoan.
- **16:30.** Atekabeltzen antzerkia: *Eguzkiaren bidaia*.
- **18:00.** Atsauretuen kalejira (Eguraldi txararekin, plazako karrapean).
- **19:30.** Dantzadi taldea plazan.
- **21:30.** Barrikotea Torrean.



Ahariz atsauretuta. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Bihar 12:30ean Trianguloatik abiatuta AHTaren kontrako manifestazioa izango da.
- **Tolosa.** TOPA plataformak batzarra deitu biharko. 12:00etan bilduko dira udal-etxeko pleno aretoan.
- **Tolosa.** Ero Etxe elkarteak antolatzen duen krosaren 25. urteurrena dela eta, bihar erraldi eta buruhandiak izango dira kalejiran Ero Etxe txarangaren laguntzarekin, eguraldiak laguntzen badu. Igandean, berriz, kroa egingo dute. Lehenengoak 11:30ean irtengo dira San Franzisko pasealekukit, eta azken itzulikoak 12:35ean. Bestalde esan, kultur etxeko beheko solairuan beren ibilbidea biltzen duen argazki erakusketa ikusteko aukera dagoela. Gaur da azken eguna.
- **Tolosa.** Box.A arte elkarteak serigrafia tailerra antolatu du biharko eta etzirako. Tailerra doan da eta informazio gehiago jasotzeko [gu@boxagara.com](mailto:gu@boxagara.com) helbidera idatzi behar da.

**ANTZERKIA**

- **Tolosa.** David Guaporen bakkriketak entzun ahal izango dira gaur, Leidorren, 20:30etik aurrera.

**BERTSOLARITZA**

- **Tolosa.** Txolarre irratiran bertso saioa bihar, 18:00etatik aurrera, Leidorren.

**Irudia Tolosa**



**LANGABETUEI BEGIRAKO ESKAINTZA**

Tolosako Maite estetika zentroak eskaintza berezia abiarazi du. Krisiak «guztioi eragiten digula» hartu dute kontutan eta «laguntza txiki bat» eman asmoz, langabetuei zuzendutako eskaintza prestatu dute. Horiek horrela, langabezia dauden

pertsonak, lanerako eskaintzaren batera joan behar dutenean, doan makillatu ahal izango dira estetika zentroan. Horretarako zentroa bertara jo beharko dute, eta langabezia txartela erakutsi eta elkarrizketa zein enpresatan egingo duten esan. r.c.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.

Telefonoa: 943 67 36 48.

- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Mikaela Zabala Goñi (Txarama).**  
Bihar 90 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**Urte askoan!**  
**Zorionak Aratz!**  
Igandean ospatuko ditugu zure 10 urteak. Ondo pasa Mitxelena familiaren partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaaldean**

liburua erosteko aukera duzue:

• **Liburudendetan:**

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

- Anoetan: Kuku-lore liburudendan.
- Ibarran: Lurdes liburudendan.
- Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.
- Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAKo bulegoan:**

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak,** bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

